

Alcalde - Alkatea

D. Miguel de los Toyos Nazabal jauna.

Tenientes de Alcalde - Alkate Ordeak

D. Alberto Albistegui Zamacola jauna.

D. Pedro Escribano Ruiz de la Torre jauna.

Dña. Ana Telleria Echeverria andrea.

D. Arcadio Benitez Dávila jauna.

D. Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna.

Concejales - Zinegotziak

Dña. Idoya Sarasqueta Aramburu andrea.

Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga andrea.

Dña. Maria Isabel Larrauri Arriaga andrea.

D. Jon Iraola Iriondo jauna.

Dña. Igone Lamarain Cobo andrea.

D. Josu Cristobal Churruca jauna.

Dña. Leire Abanzabalegui Aranguren andrea.

D. Gorka Errasti Bernedo jauna.

Dña. Ana Francisca Astigarraga Arrizabalaga andrea.

Dña. Eva Juez Garmendia andrea.

D. Jaime López de Guereñu Urisabel jauna.

Dña. Maria Mercedes Garate Larrañaga andrea.

D. Josu Mendicute Rodríguez jauna.

Dña. Maria Elena Ibañez Anuncibay andrea.

Dña. Maria Jesús Aguirre Unceta Andrea.

Interventor Municipal – Kontuhartzailea

D. Zigor Eguia Lejardi jauna.

Secretaria General - Idazkari Orokorra

Dña. Arantzazu Echániz Petralanda andrea.

Eibarko hirian, bi mila eta hamazazpiko ekainaren bostean, arratsaldeko zazpiak eta erdietan, udaletxeko batzar aretoan, Udalbatza bildu zen, likidazioan dagoen Imesa SAUren Batzar Nagusiaren aparteko bilkuran, goian aipatutako jaun-andreek osatuta.

Ez da etorri Lamarain Cobo andrea eta ezta Errasti Bernedo jauna ere.

Presidente jaunak bilerari hasiera eman dio eta eguneko aztergaiaren atal bakarra irakurri da.

#### ATAL BAKARRA

Gai zerrendaren atal bakarra irakurri da:

Sozietatearen aktibo eta pasibo osoa Eibarko Udalarri lagatzeko proiektua eta proiektu horren inguruko txostena. Administrazio Kontseiluak Batzarraren eskuetan uzten du Proiektu hori onetsi dezan.

Idazkariak dio, gaia kudeatzen ari den M. Jimeno Asesoría Tributaria y Administrativa SL etxeak emandako jarrabideen arabera, honako hauek direla hartu behar diren erabakiak:

**“Lehenengoa. Sozietatearen aktibo eta pasibo osoa lagatzea, erabaki osaga-**

En la Ciudad de Eibar, a cinco de junio dos mil diecisiete y siendo las diecinueve horas treinta minutos, se reunió el Pleno Municipal, en sesión extraordinaria de la Junta General de Imesa S.A.U. en liquidación, en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial, formado por los/as señores/as anteriormente mencionados/as.

No asisten la Sra. Lamarain Cobo ni el Sr. Errasti Bernedo.

El Sr. Presidente declara abierta la sesión y se procede a la lectura del único punto del Orden del Día.

#### PUNTO UNICO

Se da lectura al único punto de orden de día:

Proyecto e Informe sobre dicho Proyecto de cesión global de activos y pasivos de la Sociedad al Ayuntamiento de Eibar, que el Consejo de Administración somete a la Junta para su aprobación.

Afirma la Secretaria que los acuerdos a adoptar, según indicaciones de M. Jimeno Asesoría Tributaria y Administrativa S.L. quien está gestionando el asunto, serían los siguientes:

**“Primero. Cesión global del activo y**

## **rriak hartuta.**

Sozietatearen aktibo eta pasibo guztiak Eibarko Udalaren eskuetan lagatzeko proiektua eta txostena onartzea, sozietate lagatzailearen likidatzaileek 2017ko otsailaren 6an egindako eta sinatutako proiektua, Merkataritza Erregistroan 2017ko martxoaren 3an utzi zena; eta, horren ondorioz, sozietatearen aktiboak eta pasiboak osatzen duen ondare osoa Udalaren eskuetan lagatzea Lagapen proiektu horretan ezarritako baldintzetan. (Lagatako onibarrak Eranskinean daude jasota).

**Bigarrena. Hartutako erabakiak agiri publikoan jasotzeko ahalordeak eta eskuordetzak ematea; baita erabaki horiek formalizatzeko, garatzeko, zuzentzeko eta betetzeko ere.**

Likidazio Kontseiluko presidenteari, Miguel de los Toyos Nazabal jaunari, ahalmena ematen zaio notario aurrean agertu eta erabaki hauek publiko egiteko, horretarako bidezkoak diren eskritura publikoak egiletsita, konpontzekoak, argitzekoak edo zuzentzekoak barne; baita beharrezkoak edo komenigarriak diren zeinahi jarduketa egiteko ere, akordioek erabateko eraginkortasuna izan dezaten.”

Hitz egiteko txandan, aurrenik, Mendicute jaunak hartu du hitza; eta esaten du bere

## **pasivo de la sociedad, adoptando los acuerdos complementarios.**

Aprobar el Proyecto e informe de cesión global de activos y pasivos de la sociedad al Ayuntamiento de Eibar, elaborado y suscrito con fecha 6 de febrero de 2017 por los liquidadores de la sociedad cedente, y depositado en el Registro Mercantil de 3 de marzo de 2017; y en consecuencia, ceder la totalidad del patrimonio social, integrado por su activo y su pasivo, en los términos establecidos en el referido Proyecto de Cesión. (Los inmuebles a ceder se recogen en el Anexo adjunto.)

**Segundo. Delegación y facultades para la elevación a público de los acuerdos adoptados, así como para la formalización, desarrollo, subsanación y ejecución de los mismos.**

Facultar al Presidente del Consejo de Liquidación D. Miguel de los Toyos Nazabal para que pueda comparecer ante notario y elevar a público los presentes acuerdos, otorgando para ello las escrituras públicas correspondientes incluso de subsanación, aclaración o rectificación, así como para realizar cuantas actuaciones sean precisas y convenientes para la plena eficacia de los acuerdos.”

En turno de intervenciones interviene en primer lugar el señor Mendicute quien

Taldeak aldeko botoa emango duela, bazuetan blokeo estrategiko bat egiten ari direla entzuten bada ere; eta berek nahi dutena, zera dela: hirigintza-birgaikuntzarako ez diren onibarrak, Udalaren eskuetara iritsi ondoren, ahalik eta azkarren saltzea, horrela, hortik eskuratu ko lirakeen diru-sarreraren inguruko akordio batera iritsi eta diru hori zertan erabili jakin ahal izateko. Esaten du proiektu interesgarriak daudela; esate baterako, Txontata auzoa birgaitzea; Matxaria; edo Altamirako hilerri berria egiteko lursailak erostea.

Ondoren Abanzabalegui andreak hartu du hitza. Esaten du bere Taldea, alde batetik, poztu egiten dela, azkenean iritsi delako IMESAren likidazioa, baina, beste alde batetik, ez dela ahaztu behar azken urte hauetan gertatu den guztia.

2012an, dio, Bildu Udalean sartu zenean, IMESA likidatzea eskatu zuen; likidatzea edo egoera hura argitzea, urte hartan diru asko zuzendu zelako sozietatea mantentzera; eta 2015. urtean 600.000 euro inguruko galerak izan zituela kalkulatu da, Udalak bere gain hartu behar izan zuen galera, eta uste izatekoa da, orain, galerak handiagoak izango direla.

Gaineratzen du berek deitoratzen dutena hauxe dela: bost urte hauetan dirua gastatu izatea inongo onurarik ez zekarren In-

afirma que su Grupo va a votar a favor, aunque a veces se oiga que ejercen un bloqueo estratégico, y que lo que desearían es que los inmuebles que no estén destinados para la rehabilitación urbanística, una vez que pasen a propiedad del Ayuntamiento, se vendan pronto para que con los ingresos se pueda llegar a un acuerdo entre todos en qué emplearlos; considerando que hay proyectos interesantes como la rehabilitación del barrio de Txontata, Matxaria, o la adquisición de terrenos para el nuevo cementerio de Altamira.

Interviene a continuación la señora Abanzabalegui quien afirma que su Grupo, por una parte, se alegra de que por fin se produzca la liquidación de IMESA; pero que por otra, no se puede olvidar lo que ha sucedido en estos últimos años.

En el año 2012, prosigue, en cuanto entró Bildu en el Ayuntamiento, solicitó la liquidación de IMESA, o clarificar su situación; pues ese mismo año se destinó mucho dinero para mantener Imesa, y en el año 2015 se calcularon unas pérdidas alrededor de 600.000 euros, que el Ayuntamiento tuvo que asumir y se supone que ahora las pérdidas serán mayores.

Añade que lo que lamentan es que estos cinco años se haya gastado dinero en la Inmobiliaria, que no tenía ningún benefi-

mobiliaria horretan.

Esaten du baita ezin dutela ahaztu *swap*-sen kontu horrek oraindik ez duela epairik, eta epaiak zer esaten duen, Udalak 900.000 euroko zenbateko bati egin beharko dio aurre, aktiboa eta pasiboa bere gain hartzen baditu.

Beraz, albiste ona da, dio Abanzabalegui andreak, baina kontuan hartu behar da baita hemendik aurrera Udalak neurriak hartu beharko dituela herritarrek etxebizitzekin dituzten arazoei aurre egiteko, eta horretarako plan bat egin behar da.

Amaieran baieztatu du, gutxienez, amaiera eman zaiola IMESAn eraman den kudeaketa txar horri.

Ondoren, Aguirre andreak hartu du hitza. Esaten du, hasiera batean behintzat, gaia ez duela asko ezagutzen, baina berak bat egiten duela esandakoarekin: onibarrak ahalik eta azkarren sal daitezela, auzoetara eta berehalako erantzuna eskatzen duten egoeretara zuzentzeko.

Gaineratzen du Udalaren aldetik egindako kudeaketa nahiko deitoragarria iruditzen zaiola, eta berak arazo bat izan zuela IMESAri erositako garaje batekin eta hura ez zela ondo gestionatu.

Ondoren, Alkate jaunak hartu du hitza.

cio.

Dice así mismo, que tampoco pueden olvidar que no está sentenciado el asunto de los swaps, y que según lo que se sentencie, el Ayuntamiento tendrá que hacer frente a 900.000 euros, si asume el activo y el pasivo.

Por tanto, continúa, es una buena noticia, pero hay que tener en cuenta que a partir de ahora, el Ayuntamiento tendrá que tomar medidas para hacer frente a los problemas que tienen los ciudadanos con la vivienda, para lo que es preciso elaborar un Plan.

Concluye afirmando que se acaba por lo menos la mala gestión que se ha hecho de IMESA.

Interviene a continuación la señora Aguirre quien afirma que en principio conoce poco el tema, pero que se suma a que se vendan cuanto antes los inmuebles para dedicarlos a los barrios y a situaciones que requieren de una respuesta inmediata.

Añade que le ha llegado la gestión bastante deplorable por parte del Ayuntamiento y que ella personalmente tuvo un tema con un garaje que adquirió a IMESA y que no se gestionó bien.

Interviene a continuación el señor Alcal-

Esaten du berak ez duela egingo IMESA-ren kudeaketan egin diren gauza onen alde egin eta egin zitezkeen akatsekin alderatu, zalantzarik gabe, akatsak egin direlako, baina Udalak subrogazioz jasoko duen ondare horren inguruan hauxe nahi duela argitzea: onibar gehienak emakidazko garajeak —emakidadunen eskuetan daudenak— eta jendea bizi den etxebizitzak direla, Asolaigartzako etxebizitza bi kenduta, babestutako etxeak eta, adjudikatze orduan, arazoak ematen ari direnak.

Saltzeko jar daitekeen beste ondasunen bat egon daiteke, dio alkateak, baina Udal Idazkari andreak hauxe oharteman zion: salmentatik sortutako edozein diru-sarrera Udalaren Lur Ondarera zuzendu behar dela, eta ikusi nolako ekintzak egongo lirartekeen justifikatuta Udalaren Lurzoru Ondare horren zertarako horien barruan.

Aurretik irakurritako puntu horiek bozkatu eta aho batez onartu dira.

Bilkura hemeretziak eta berrogeita bostean amaitu zen.

de quien afirma que no va a defender bondades en la gestión de IMESA en contraposición a posibles errores, que sin duda se han podido dar, pero que sí desea aclarar en cuanto al patrimonio en el que el Ayuntamiento se va a subrogar, que la mayoría de los inmuebles son garajes en concesión, que ya tienen concesionarios, y viviendas ocupadas, salvo dos de Asola Igartza, que son vivienda protegida, y con las cuales están surgiendo problemas para su adjudicación.

Puede haber algún otro bien que se pueda poner en venta, prosigue, pero le advertía la Secretaria Municipal que cualquier ingreso de la venta tendrá que ir destinado al Patrimonio Municipal del Suelo y ver qué tipo de acciones estarían justificadas dentro de los destinos del Patrimonio Municipal del Suelo.

Sometidos a votación los puntos anteriormente leídos, se aprueban por unanimidad.

Finaliza a las diecinueve horas cuarenta y cinco minutos.